



Jai batzordeko kideak, jaietako kartelekin. **OIER ARRIBAS CIRIA**

Intxaurrondo Zaharreko jaiak, auzotarren esku

Erramuz apainduko dute bihar auzoa, baina ostegunera arte, irailak 10, ez dituzte hasiko jaiak. Osagai ezagunekin prestatutako egitarauan berritasunen bat bada, gazteen arteko harri desafioa, kasu.

🔗 Maitane Aldanondo Gabilondo

Intxaurrondo Zaharrak herri izaera du. Edo nahia, gutxienez. Jaietan giro ona da nagusi, baina, han, alkatari ematen diote agintea auzotarrek. Txupinazoaren aurretik, beren burua aurkeztu duten bizilagunen artean aukeratzen dute agintaria. Lehen zereginetako bat jaien omenduari saria ematea da. Aitortzarekin batera, etxafuegoari sua emateko ohorea ere jasotzen du saridunak. Ez du nor izango den azaldu nahi izan jai batzordeko kide Jone Alvarezek; soilik, «bereziak» direla, «auzotarrak» baitira. Hori guztia ostegunean, hilak 10, gertatuko bada

ere, aurrez, erramuz apainduko dituzte kaleak, leihoz leiho, jada berritu duten ohitura zaharrari jarraiki.

Erantzun onak egonkortutako egitarauari ekarpen gutxi egin dakioko, baina baten bat bada aurtengoan. Utzitako bat berreskuratuta, baratzuri zopa prest izango dute larunbat goizaldean Zulo Zahar elkartearen ostiral gau luzeari amaiera ona eman eta etxera tripa beteta joateko. Horrez gain, gazteen harri desafioa prestatu dute lehenengoz. Azken urteetan gaztetxoek eta nerabeek beren tokia izateko ahalegina egiten ari dira auzoko zenbait familia.

«Hasieran, herri kirol librearen egingo dituzte. Gero, gazteenek *Zein da zein* proba jolasa izango dute eta besteek desafioa». Hala, nor baino nor ariko dira Intxaurrondoko eta Egiako harrobiak.

Ohitura berriak

Herri kirolek garrantzi berezia hartu dute azken urteetan, emakumezkoen trontza probari esker. Hamabost-hamazazpi bikote lehiatuko dira, aurrez; tartean, Alvarez bera. Egin duten hiruetan lehiatu da. Hasieran, jarduera berria zelako animatu zen, «herri kirolean emakumezkoen parte hartze indatze aldera sortu zelako», gerora, «ohitura» bihurtu da eta «ilusioz betetzen» du. «Jendetza agertzen da eta parte hartzaileen artean oso giro ona izaten dugu. Jendea gero eta gehiago entrenatzen hasi da, beraz, balio izan du auzoko emakume desberdinak elkartzeko ere», gogoratu du. Behar baino gutxiago entrenatu duela aitortu arren, «zeozer egingo dugu», uste du.

Arrakasta du trontzak, eta nola ez, musikak. Iaz moduan, Zulo Zaharreko Txaparrenen kontzertuak antolatu ditu, «pixkana, gune berri bat sortu eta auzoa pixka bat handitzeko». Kioskoak,

larunbatean, Flesh&Blood Posse eta Redstone ekarriko ditu; eta, Erdikoa tabernak DJ saio bat prestatu du duela gutxi hildako Juanjo Iturrioz bizilagunaren omenez. Jai batzordearen ardura diren artean, Niña Coyote eta Chico Tornado nabarmendu ditu kideak: «Auzoko jendea, auzoan».

Ardura zaharrak

Huts egiten ez duten beste jarduerak su artean eta mahaiaren bueltan aurrera eramaten direnak dira. «Intxaurrondo Zaharra familia auzoa da, eta janak elkartzen du familia», laburbildu du kideak. Jaietan oso une bereziak izaten dira otorduak, ostiraleko afarian, esaterako, «giro aparta egoten da». Paella herrikoia, parrillada... zer jan ez da faltako. Marmitako txapelketa ere indarra hartzen doa, partaidetza ostiral gau luzeak baldintzatuta ere. Aurten, iaz moduan, haurrentzako menua izango dute larunbateko bazkarian, Intxhaurgunearen eskaintza borobiltzeko.

Jai batzordeaz harago, eragile eta norbanako ugari badira ardurak hartzen dituztenak. Urtez urte errepikatzen diren jarduerak gauzatzea bere gain uzten dituztenez, Alvarezen esanetan, festak «auzo guztiaren lana izaten dira, ez jai batzordearena soilik».

Hilaren 14an amaituko badira ere, urriaren 9ra arte iraungo duen jarduera bat bada: *50 urte Intxaurrondo Zaharreen. Zahartzaroa bizitzen!* erakusketa. Larrotxenen egongo da Aitona-Amonen Etxeak auzoarekin duen lotura islatzen duen irudi bilduma. ●

LARUNBATA 5

11:30

Jailetako erramuaren prestaketa, plazan.

14:00

Bazkaria, Zulo Zahar elkartean.

OSTEGUNA 10

17:00-20:00

Alkatetzarako hauteskundeak, Erdikoa tabernan.

20:00

Jaien hasiera ekitaldia.

21:00

Sardina jana.

Maraka Sound System, txosnagunean.

Zulo Zahar festa, Zulo Zahar elkartean:

-Kontzertuak: Divine, Vietcong 68 eta Kanaleta.

-23:00etan, mojito festa.

OSTIRALA 11

17:00

Eidaberen *Sardina Freskue* haur ikuskizuna, txosnagunean.

18:00

Buruhandiak eta txokolate jana, auzoan barrena.

Mozorro kalejira musikatua, Irurak tabernatik hasita.

18:30

Haur eta gazteentzako herri kirol libreia.

Intxaurrondotik mundura: *Zein da zein* proba jolasa.

Hip-hop emanaldia, parkean: Artie & Rask.

21:00

Herri afaria, plazan: txanpiak, entsalada, lasaña, postrea eta kafea.

23:00

Zezensuzkoa.

23:30

Itzal erromeria, txosnagunean.

00:00

Joaquin Mir DJ-a, Zulo Zahar elkartean.

05:30

Baratzuri zopa, Zulo Zahar elkartean.

LARUNBATA 12

11:30-13:30

Haur jolasak Intxhaurguneren eskutik.

12:00

Kantu dantza jira, txosnatik abiatuta.

13:00

Marmitako txapelketa, Intxaurrondo kalean.

14:30

Herri bazkaria, txosnagunean: tomate entsalada, marmitakoa, postrea eta kafea.



**Gora Intxaurrondo
Zaharreko jaiak!**

943-54 88 72 · 688-64 98 02

Intxaurrondo kalea, 54, behe 3, 20015 Donostia

artatxikibiogunea@gmail.com



barro
cerámica

barro-ceramica.com
Jose Maria Soroa 13 (Gros)



ERRESERBATU HEMEN ETA INFORMAZIO GEHIAGO



2025eko Intxaurrondo Zaharreko jaietako emakumezkoen trontza txapelketa jendetsua. BEÑAT PARRA RODRIGUEZ

15:00-23:00

Bombadil Sound Systemen eskutik, Kiosko vibes 3, Kioskoan: Flesh & Blood Posse eta Redstone.

17:00

Buruhandiak eta txokolate jana, auzoan barrena.

18:00

Emakumezkoen trontza txapelketa, Intxaurrondo kalean.

Gazteen harri desafioa, Intxaurrondo kalean: Intxaurrondo vs Egia.

19:30

Spaider Rekordz, Zulo Zahar elkartean.

21:00

Parrillada, plazan: saltxitxak eta hanburgesak.

23:00

Zezensuzkoa, auzoan barrena.

23:30

Kontzertuak, txosnagunean:
Zeba, Niña Coyote eta Chico Tornado eta Siwanaba.

00:00

Gery_17 DJ-a Erdikoa tabernan, Juanjoren omenez.

IGANDEA 13

13:30

Paella prestaketa herrikoia, Intxaurrondo kalean.

15:00

Paella jate herrikoia, Intxaurrondo kalean (10€).

16:30

Mus txapelketa, txosnagunean.

17:00

Ur entzierrikoa, plazan.

17:30

Apar festa, plazan.

18:30

Zinten jokoa, Intxaurrondo kalean.

19:00

Jaien amaierako traka.

ASTELEHENA 14

12:30

Meza Salestiarretan, urtean zehar hildako bazkideengatik.



Ondo pasa jaietan!



Gabriel Aresti, 165, 20015 Donostia – 943-89 95 16 – 012958aa@hezkuntza.net